

bat

HITZAURRE GISA

Iñaki Martínez de Luna

Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sarien epaimahaiburua

Belen Uranga

Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sarien idazkaria

Helbide elektronikoa: belen@soziolinguistika.org

Hemen aurkezten dugun BAT aldizkariaren zerbakia berezia da guretzat, aspaldian generabilkien asmoa gorpuztu baitzaigu: Euskal Soziolinguistika Sarien lehen edizioaren emaitza erakusten duen ale hau, hain zuzen.

Euskararen normalizazio bidean guztion ekimenak praktikan jartzea behar-beharrezkoak diren bezala, horren guztiaren ondoan hausnarketa teorikoaren eta metodologikoaren garapena ezinbestekoa dela jakina da. Gogoeta teorikoa eta ikerketarako metodologiaren eta tekniken garapena ezinbestekotzat ditugu helburuak behar bezala formulatu, eredu teorikoak planteatu, aplikatu, emaitzak neurtu eta ditugun baliabideei ahalik eta etekin handiena atera nahi badiegu.

Garapen teorikoak errealitatea ezagutzeko eta hobeto azaltzeko baliogarri izan behar du; eta, aldi berean, aplikazioan eragin zuzena izateko moduak ezarriko ditu. Ideia horretan buru-belarri murgilduta dago Soziolinguistika Klusterra, eta bereziki BAT Soziolinguistika aldizkaria, duela 18 urte zabalduko bideari segida emanez. Horregatik, Euskal Herrian bereziki, baina baita nazioarteko ikuspegitik ere, soziolinguistika teorikoan garatzen ari diren hausnarketa teorikoak eta bila-

kaera metodologiko-teknikoak biltzen eta euskal gizarteari eskaintzen saiatzen gara.

Ildo beretik, Soziolinguistika Klusterrak eta bereziki BAT aldizkariaren argitalpen Batzordeak lehiaketa hau antolatzea proposatu zuen. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin abian jarri dugu ekimena. Deialdi honetan euskal soziolinguistikaren arloko lanak saritu nahi izan dira, kontuan hartuta euskararen gainekoak nahiz kanpoan landutakoetatik, gure hizkuntzaren egoera aztertzeko eta ulertzeko baliagarriak izan daitezkeela.

Aldi berean, euskal soziolinguistikarekin harreman zuzena duten ikerlariak eta oraindik euskararen eremura hurbildu ez direnak ere gonbidatu nahi izan ditugu, modu horretan hizkuntzaren eta soziolinguistikaren inguruko ikerketen oinarriak zabaldu eta aberastuko baitira. Gonbidapena egin diegu, beraz, giza eta gizarte jakintza alorretako ikertzaile guztiei, hau da, soziolinguistikatik bertatik egindako garapen berriak ez ezik, beste adar zientifikoko ekarpenak ere bulztatzen dituztenei.

Bide horretan HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sariak abian jartzea erronka bat da Klus-

terrarentzat. Euskal Herriak eman ditu -ematen ditu- munta handiko adituak ezagutza-eremu horretan, eta ematen jarraitzea da gure nahia. Gure egin beharra, lehiaketa honekin beraz, xede hori hartuta bultzadaxoa ematea da.

Aipaturiko helburuak kontuan hartuta Soziolinguistika Sariak lehiaketaren lehen edizio honetan epai-mahaiak deialdian ezarrita zeuden irizpideak kontuan hartu zituen aurkezturiko lanak saritzeko orduan, bereziki, euskal soziolinguistikarentzat berritzailea izatea, eta, neurri batean, euskal eremuan aplikagarria izatea. Horren arabera honako erabakiak hartu zituen:

Lehen saria hutsik uztea, bere iritziz, jasotako lanek alderdi oso interesgarriak dituzten arren ez zutelako erantzun bete-betean soziolinguistikaren ikuspegitik ekarpen berritzaile izate eskakizunari. Hala ere, aurkezturiko lanen interesa azpimarratu nahi izan du.

Sariak ondoren aipatzen diren lanen egileei banatu zitzairen

Bigarren saria, *Erabilera ala ezagutza sustatzeko politikak? Erabilera neurketak oinarri, politikak erabakitzeko metodo bat.* **Fermin Lazkano**, Aztiker - Jendarte-ikerketak aplikatuak.

Hirugarren saria, *Euskara birpentsatu beharra. Ekarpene batzuk antropologiatik.* **Jone M. Hernández**, Gizarte antropologiako irakaslea. UPV-EHU.

Laugarren saria, *Emakumea eta euskal irakaskuntza.* **Eunate Irazabal**, Irakaslea, Gasteizeko Irakasle Eskola.

Bosgarren saria, Nafarroako toki administrazioetako euskararen normalizazioan eragiteko oinarriak. **Castillo Suarez**, Burlatako euskara teknikaria.

Fermin Lazkanok azken 15 urteetan egindako euskararen kale erabilerean neurketak hartu ditu aztergai, eta hizkuntza politika diseinatzeko garaian baliagarri izan daitekeen metodo bat proposatu du. Horretarako, 1989. urtetik aurrerako euskararen ezagutza- eta erabilera-maila erlazionatu ditu hiru neurketa puntu aukeraturik: 1989koa, 1997koa eta 2006koa. Anali-

si grafikoa eginez atera duen ondorio nagusia da ezagutza eta erabilerean arteko erlazioan atalase-puntu bat gertatzen dela, ezagutzaren %45 inguruan, hain zuzen, eta maila horretatik aurrera euskararen erabilera bizkortzen dela (euskaldun berri bakoitzeko erabilizaile bat baino gehiago irabazten baita) eta alderantziz. Beraz, hizkuntza-politika eraginkor baten inguruan datu hori kontuan hartu beharreko ideia plazaratu du egileak lan honetan.

Izenburuak iradokitzen duen moduan *Euskara birpentsatu beharra. Ekarpene batzuk antropologiatik* **Jone Miren Hernández** irakasleak euskararen hizkuntza-kontzeptua eta hizkuntza-komunitate kontzeptua berraztertu beharra planteatzen du. Euskal soziolinguistikaren aztertzen den hizkuntza-komunitatearen kontzeptua eta hizkuntza bera antropologia anglosaxoian erabiltzen den praktika-komunitatearekin erkatzen ditu artikuluan, eta abiapuntu horretatik, antropologia feministatik datozen hainbat ideia eta alboetatik eratorritako ahots eta identitate desberdinak aztertzeari ekiten dio. Bide horretan, euskal bertsolaritzaren baitan gertaturiko aldaketa sakonak kontuan hartuz (emakumearen sartzekak bertsolaritzaren kontzeptuan bertan izandako eragina, esate baterako) agian hizkuntza-komunitatearen mugei buruz ere eztabaidatzera eraman beharko lukeela iradokitzen du. Egilearen ustetan "XXI. mendean hizkuntza, hiztuna eta komunitatearen definizioak ezin dira berdin mantendu. Identitatearen osaketa eta hizkuntzen balioa erabat aldatu [bait]dira guztiz globalizatu den mundu honetan".

Castillo Suárezek lanaren helburua euskara planak diseinatzeko zenbait oinarri eskaintzea da, batez ere Nafarroako Foru Erkidegoko euskara teknikariei. Oinarri horietan Castillo Suárezek planteatzen duen berrikuntza nagusia gero eta erakunde gehiagok kontuan hartzen dituzten kalitatearen kudeaketarako sistemen aplikagarritasuna da, euskararen plangintzetan ere. Horretarako Nafarroan indarrean dagoen lege-

riaren inguruko oinarrizko hainbat datu eskaintzen ditu toki entitateen antolamenduaren arabera, baita hizkuntza normalkuntzarako hartzen diren neurrien berezitasunak ere. Azkenik, ezaugarri horiek kontuan hartuz kalitatearen irizpidea ezartzeko hainbat eredu ere erakusten ditu, esate baterako, *Commun Assesment Framework* (CAF) eta *Gida Panel integralaren eredu* (Balanced scoredcard).

Soziolinguistika Sarien atala ixteko **Eunate Iratzabal** irakasleak emakumeek euskal irakaskuntzan izan duten presentzia eta betekizuna aztertu du. Hizkuntzaren transmisioan landa giroan emakumeek izandako betekizunetik abiatuz, XX. mendeko lehen euskal eskoletan izandako presentzia ia erabatekoa azpimarratuz, 60. hamarkadan ikastolen sorreran eta garapenean izandako zereginen ezaugarriak lerrotatzen ditu: hasierako garaian hizkuntzaren eta tradizioaren mantentzaile izatetik eragile modernizatzailea bilakatzeraino. Azkenik, gaur egungo hezkuntza-sisteman ere emakumeek duten nagusitasuna agerian jartzen du, eta azken urteetan aipatzen ari den hizkuntzaren (euskararen) feminizazioa azaltzeko ere formulatzen duen hipotesian emakumeen tradiziozko betekizunek duten pisua azpimarratzen du.

Baina zenbaki honetan ere baditugu Euskal Herritik kanpotik heldu zaizkigun bi kolaborazio ere. Artikulu horiek *Soziolinguistikaren inguruan* izenburuko atalean kokatu nahi izan ditugu. Lehen, **Alain Viaut**, Okzitaniako poeta eta soziolinguista ezagunaren lana da. Bertan, hizkuntza-beharraren kontzeptutik abiatuz Frantzia piztu den soziolinguistikako eztabaida garrantzizko baten oinarrizko datuak ekarri ditu.

Bertan, Louis-Jean Calveten grabitazio eredu eta Henry Boyer-en ikuspegia erkatzen ditu, azkenik Lluís V. Aracilen zirkulu funtzionala azalduz. Artikulu honetan planteatzen dena hizkuntza-beharraren, gizartearen hizkuntza-funtzioen eskariaren eta hizkuntza politiken bitartez eskaini daitezkeen hizkuntzaren gizarte funtzioen arteko harremana da. Ereduak egoeraren aztertzaile izateaz gain eragile ere izan daitezkeen ideia ere formulatzen da.

Amaitzeko gure herrian oso ezagunak egin diren **Ferran Suay i Lema** eta **Gemma Sanginés Sáiz** aditu valentziarrek sinaturiko artikulua dugu, *Hizkuntza-mendetasuna aztertzeko eta egoera horretan esku hartzeko eredu bat* izenburuarekin. Artikulu horretan egileek hizkuntza-ukipeneko egoeretan hizkuntza aukeratzeko jokabidea ikuspegi psikologikotik aztertu nahi izan dute. Eta horren aurrean gatazka-egoera horiei (hizkuntza gutxituen kasuan gertatzen diren gatazka-egoerei, hain zuzen) aurre egiteko esku hartze eredu bat proposatu nahi dute, beti ere hizkuntza gutxituko hiztunen ikuspegitik. Hipotesia da hizkuntza-mendetasun egoeran hiztunek sarritan beren hizkuntzan hitz egiteari uko egiten diotela. Horrek ez du esan nahi halaberharrez pertsona mendeko denik baina bai mendeko jokabideak garatzen direla, eta alderantziz. Beraz, jokabidean eragiten duten aldagaiak identifikatu ostean, TELP izeneko psikologian oinarritutako jokabide eredu bat proposatzen dute. Eredua ikastaroen bitartez aurkeztu izan dute eta bere helburua norbanakoaren baliabideak indartzea da.

Hemen duzue beraz, Euskal Soziolinguistika Sarietako lehen edizio honetako emaitzak biltzen dituen BAT Aldizkariaren ale berezia. Ekimen honek jarraipena izan dezan gonbidatu nahi ditugu esparru desberdinetako euskal ikerlariak soziolinguistika arloan euskararen normalizaziorako bidean ekarpenak egiten jarrai dezaten.■

